

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4808

EBAZPENA, 2022ko urriaren 3koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Sailen Esparru Arautegiaren testu bategina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen duena.

UPV/EHUko Sailen Oinarrizko Arautegia Gobernu Kontseiluaren 2019ko irailaren 26ko bileran onartu zen, eta 2019ko urriaren 17ko EHAAan argitaratu zen. Gero, Gobernu Kontseiluaren 2020ko otsailaren 4ko Erabakiaren bidez aldatu zen (2020-02-21eko EHAA).

Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 13ko Erabakiaren bidez, arautegiaren aldaketa partial bat onartu zen. Aldaketaren arrazoi nagusia izan da sailletako organoen funtzionamenduari buruzko zenbait alderdi hobetzea, horrela egitura horien kudeaketa malguagoa izan dadin eta koherenteagoa unibertsitatearen gainerako arauekin.

Erabaki hartan Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren esku uzten zen aldaketa hura onartu ondorengo testu bategina egitea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Herriko Unibertsitateko Sailen Esparru Arautegiaren testu bategina, eranskinean jasotzen den legez.

Leioa, 2022ko urriaren 3a.

UPV/EHUko idazkari nagusia,
AITOR ZURIMENDI ISLA.

ERANSKINA

SAILEN ESPARRU ARAUTEGIA

I. TITULUA

DEFINIZIOA, XEDEAK, EGINKIZUNAK ETA EGOITZA

1. artikulua.– Definizioa.

1.– Sailak irakaskuntzako eta ikerketako unitateak dira, eta sailen ardura da jakintza eremu batean edo gehiagotan eta ikastegi batean edo gehiagotan irakaskuntza koordinatzea UPV/EHUko irakats programazioari jarraituz. Era berean, sailen zeregina da irakasleek eta ikertzaileek irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan dituzten jarduera eta ekimenak bultzatzea.

2.– Sailak izan daitezke UPV/EHUrenak berarenak, unibertsitate artekoak edo mistoak.

a) UPV/EHUren beraren sailak dira horrela sortutakoak, eta guztiz txertatuta daude unibertsitatearen egituran eta antolamenduan.

b) Unibertsitate arteko sailak dira beste unibertsitate batzuekin batera sortutakoak.

c) Sail mistoak dira goi mailako hezkuntzako edo ikerketako beste zentro batzuekin batera sortutakoak.

2. artikulua.– Eginkizunak.

Honako hauek dira sailaren eginkizunak:

a) Bere eskumeneko irakaskuntza jarduerak koordinatzea eta ematea.

b) Saileko irakasle-ikertzaileen ikerlana bultzatzea eta babestea.

c) Lankidetzan jardutea UPV/EHUko beste egitura batzuekin eta beste erakunde publiko edo pribatuekin, bai irakaskuntzaren arloan, bai ikerketan.

d) Zientziaren, teknikaren, giza zientzien edo artearen alorreko jarduerak sustatzea, unibertsitateko ikasketak garatzea eta Estatutueto 97. artikuluan zehaztutako gainontzekoak.

e) Saileko kideen berrikuntza zientifiko eta pedagogikoa sustatzea.

f) Aurrekontua kudeatzea Estatutuei eta aurrekontuak gauzatzeko UPV/EHU indarrean dauden araei jarraituz, baliabide materialak administratzea eta saileko langileak edo sailari atxikitakoak zuzentzea.

g) Sailaren urteko plangintza garatu eta betetzea.

h) Urteko memoria egitea, Arautegi honetan aurreikusitako baldintzen arabera.

i) UPV/EHUko gainerako organoei eginkizunak betetzen laguntzea.

j) Ikasketa planak egiten parte hartzea, baita bere eskumeneko gainontzeko jardueretan ere.

3. artikulua.– Sailaren egoitza.

1.– Arautegian jasota egongo da zein den sailaren egoitza administratiboa, eta sailak ezingo du izan inolaz ere egoitza bat baino gehiago, ez eta egoitza aldian-aldian aldatu ere.

2.– Egoitza aldatzeko Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, eta aldaketa saileko kontseiluak proposatuko du, arautegiari jarraikiz.

3.– Saileko zuzendaritza lekuz aldatzea edo saileko kontseiluak zuzendari berria hautatzea ez da nahikoa arrazoi izango sailari egoitzaz aldatzeko baimena emateko.

4.– Beharrezkoa izanez gero, Gerentziak neurriak hartuko ditu sailaren egoitzaren eta zuzendaritzaren arteko komunikazioa bermatzeko.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

4. artikulua.– Sailen araubide juridikoa.

1.– Sailak honako hauei jarraikiz arautuko dira: indarreko legeria, Estatutuak eta esparru arautegi honetako xedapenak. Esparru arautegi honek gutxieneko arauak jasotzen ditu eta UPV/EHUko sail guztiei aplikatuko zaie.

2.– Aipatutako arautegietan jasotakoez gain, sailek osatu egin ahalko dituzte arautegi honetako xedapenak, bertan adierazitako kasuetan eta moduan, sail bakoitzaren arautegiaren bitartez.

3.– Gobernu Kontseiluak onartuko du, behin betiko, sail bakoitzaren arautegia, legeak agintzen dituen txostenak egin eta gero, legezketasun txostena barne. Idazkari nagusiak, eskumenak eskuordetuta, onartuko ditu arautegi horiek, betiere txosten guztiak aldekoak badira eta inork eskatu ez badu Gobernu Kontseiluan aurkezteko. Honako hauek dute hori eskatzeko eskubidea: Gobernu Kontseiluko kideek; arautegiak eragin egiten diela uste duten sailetako kontseiluek; eta kasuan kasuko saileko kideen % 15, gutxienez. Edozelan ere, idazkari nagusiak onarpen horren berri eman behar dio Gobernu Kontseiluari.

4.– Sailek honako printzipio hauek bete behar dituzte egituran eta funtzionamenduan:

a) Unibertsitateko kide anitzeko eta kide bakarreko organo orokorreari men egitea.

b) Sail bakoitzaren barruan, kide anitzeko organoak kide bakarrekoen gainetik egotea.

c) Sail atalen antolakuntza autonomia eta autonomia funtzionala errespetatzea, haien eta osakideen arteko orekari eta elkarlanari kalterik egin gabe.

5.– Sailek beteko dituzte hizkuntza normalizazioaren eskumena daukan errektoreordetzak helburu horretarako planen baitan ematen dituen jarraibideak. Erraztasunak emango dituzte kide anitzeko organoen bileretan bi hizkuntza ofizialak erabil daitezenean, hartara kide bakoitzak, bere eskubide linguistikoak baliatuz, gura duen hizkuntza ofiziala erabil dezan askatasun osoan.

5. artikulua.– UPV/EHUko sailak sortu, aldatu eta kentzea.

1.– Sailak jakintza eremuak oinarri hartuta sortu edo aldatuko dira, jakintza eremutzat hartuta jakintza arloak ez ezik, Gobernu Kontseiluak zehaztutako irizpideen arabera irakaskuntzako proiektu koherentea garatzen duten gainontzekoak ere.

2.– Gobernu Kontseiluari dagokio sailak sortu, aldatu edo kentzeko erabakia hartzea, kasuan zerkusia duten sailek aurretik iritzia emanda eta egoki diren txostenak eginda.

3.– Saila sortu edo aldatzeko proposamenarekin batera, memoria bat aurkeztu beharko da. Bertan adierazi beharko da legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla, eta datu hauek bildu beharko dira:

a) Sailaren izena, bilduko dituen jakintza eremuen zerrenda eta saila sortzeak eragingo dien irakasleen, ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen zerrenda.

b) Atxikiko zaizkion gai edo irakasgaiak eta ikerketa ildoak.

c) Sailari atxikitako ondasunak, azpiegiturak eta lokalak.

d) Sail berriak behar izango dituen baliabideen eta funtzionamendu gastuen ebaluazio ekonomikoa.

e) Sailaren behin-behineko araudia.

4.– Gobernu Kontseiluari dagokio saila sortzeko beharrezko izango den irakasle-ikertzaileen kopurua, kategoria eta arduraldia zehaztea, baina, edozelan ere, gutxienez 18 kide arduraldi osoa edo parekoa duten irakasle-ikertzaile iraunkorrak izan behar dira eta horietako 12, gutxien dela, doktoreak, arautegi honetako lehen xedapen gehigarria galarazi barik.

5.– Saila kendu edo aldatzeko proposamena arrazoitua izan beharko da, eta neurri horrek eragingo liekeen ikasketa edo ikerketa jarduerak nora aldatuko liratekeen zehaztu, eta zeri atxikita geratuko liratekeen horrek ukitutako langile eta baliabideak.

6. artikulua.– Unibertsitate arteko sailak eta sail mistoak sortzea.

1.– Unibertsitate arteko sailak edo sail mistoak sortzeko, hitzarmena sinatu behar da, aurrez, kasuan kasuko unibertsitatearekin, goi mailako hezkuntzako ikastegiarekin edo ikergunearekin.

2.– Saila sortzeko hitzarmenak Estatutuetan eskatzen diren formalitateak bete behar ditu. Hitzarmenak sailaren gobernu eta funtzionamendua arautuko ditu, alde bakoitzak egin dezakeen kontrol eta egiaztatze lana eragotzi barik, eta arautegi honetako 5. artikuluan aipatutako memoriak eduki behar dituen gutxienerako edukiak jasoko ditu.

III. TITULUA

SAILAREN OSAERA ETA EGITURA

7. artikulua.– Saileko kideak.

1.– Honako hauek dira saileko kideak: sailari atxikitako irakasle-ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak edo sailak bere baliabideen kontura kontratatutakoak, baita graduoko ikasleen ordezkariak eta graduondoko ikasleak ere.

2.– Aurreko atalaren ondorioetako, irakasle-ikertzaile iraunkor guztiak sailtako jakintza arloetan sartuta egongo dira; horrek, hala ere, ez du esan nahi unibertsitateko beste egitura batzuei atxikita ezin egon daitezkeenik. Aldi baterako kontratatutako irakasle-ikertzaileak jakintza arloetan eta sailtan sartuko dira, edo, egoki izanez gero, unibertsitateko beste egitura batzuetan.

3.– Salbuespen moduan, sail bateko irakasle bat aldi baterako beste sail bati atxiki ahal izango zaio, Gobernu Kontseiluak onartutako irizpide orokorre jarraikiz.

4.– Ez da baimenik emango atxikipena aldatzeko, baldin eta horrek saileko irakats betebeharrak bete gabe geratzea badakar.

8. artikulua.– Sail atalak.

1.– Sailak sail atalak sortu ahal izango ditu bere arautegiaren bidez, esparru arautegi honetan zehaztutakoari jarraituz.

Sailek jarduna dutenean campus edo ikastegi batean baino gehiagotan sail atalak eratu ahal izango dituzte.

Hala ere, sailaren egoitza dagoen ikastegian sail atal bakarra eratu ahal izango da, sailak ikastegi horretan dauzkan irakasle-ikertzaile guztiak bilduko dituen.

Aurrekoa gorabehera, sailek atalak eratu ahal izango dituzte Ikastegien Oinarrizko Arautegiaren arabera eratutako ikastegiko ataletan.

Sailek campusetan jarduna dutenean eta ezinezkoa denean artikulua honi jarraituz sail atalak ikastegietan edo ikastegiko ataletan sortzea, campuseko sail atalak eratu ahal izango dira, kasuan kasuko campusean diharduten saileko irakasle-ikertzaile guztiak bilduko dituztenak.

Sail atalak sortu edo kentzeko, arautegia aldatu beharko da.

2.– Sail atal bakoitzak sei irakasle-ikertzaile izan behar ditu gutxienez, eta horietako lauk arduraldi osoz jardun behar dute. Sail atalak sortzen direnean, irakasle-ikertzaile bakoitza atxikiko zaio bere ikastegiari dagokion atalari. Irakasle-ikertzaileak atal bakar bati baino ezingo dira egon atxikita. Saileko arautegian jasota egongo dira sail atalen egoitzak. Edozelan ere, egoitza irakasleek eskolak ematen dituzten ikastegietako batean egon behar da.

3.– Sail atalak ataleko kontseilua eratuko du, dagozkion eginkizunak betetzeko. Ataleko kontseiluak osakide hauek izango ditu: ataleko irakasle-ikertzaile guztiak, administrazio eta zerbitzuetako langile guztiak eta ataleko ikasleen ordezkariak, saileko kontseilurako ordezkariak aukeratzen diren modu berean hautatuak. Ataleko kontseiluak atalaren funtzionamenduari dagozkion eginkizun guztiak beteko ditu eta, bereziki, irakaskuntzako eta administrazioeko eginkizunen programazioa eta antolakuntza proposatuko dio saileko kontseiluari edo, dagokionean, batzorde iraunkorrari edo kasuan kasuko gobernu organoari.

4.– Ataleko kontseiluak ataleko koordinatzailea aukeratuko du atalari atxikitako irakasle-ikertzaileen artean. Koordinatzaile hori izango da organoko burua, eta bertan hartutako erabakiak betearaziko ditu. Ataleko kontseiluak idazkaria ere izendatuko du, bilera guztietarako edo bilera bakoitzerako, eta idazkariaren eginkizuna izango da bileretako aktak egin eta bileran hartutako erabakiak jasotzea.

5.– Sailaren aurrekontuan atal bakoitzari dagokion zatia bereizita azalduko da.

IV. TITULUA

SAILETAKO GOBERNU, ORDEZKARITZA, ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA ORGANOA

9. artikulua.– Sailetako gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketa organoak.

1.– Sailaren gobernu bere kontseiluari eta zuzendariari dagokie.

2.– Saileko gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketarako kide anitzeko organoak dira saileko kontseilua eta, egonez gero, batzorde iraunkorra eta ataleko kontseilua.

3.– Saileko gobernu, ordezkaritza eta administrazioarako kide bakarreko organoak, berriz, zuzendaria eta idazkari akademikoa dira, bai eta, hala dagokionean, ataleko koordinatzaileak ere.

I. KAPITULUA

KIDE ANITZEKO ORGANOAK

1. ATALA

SAILEKO KONTSEILUA

10. artikulua.– Osaera.

1.– Hauek izango dira saileko kontseiluaren osakideak: zuzendaria, idazkaria, irakasle-ikertzaile iraunkor guztiak eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiak, sailari atxikitako gainerako irakasle-ikertzaileen ordezkari bat (saileko arautegiak zehaztuko du zenbat), sailak ematen dituen irakaskuntza zikloetako (gradua, masterra eta doktoregoa) ikasleen ordezkari bana gutxienez, eta sailari atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileen 3 ordezkari gehienez, horien artean nahitaez sartuta idazkari administratiboa, edo idazkari administratiboak bi direnean.

Sailaren arautegian besterik adierazi ezean, honako hauek ere saileko kontseiluko kide izango dira:

a) Sailari atxikitako gainerako irakasle-ikertzaileen ordezkariak (ordezkari bat bost kideko edo bostetik beherako multzo bakoitzeko).

b) Graduoko ikasleen ordezkari bat. Saileko kontseiluak 26 kide baino gehiago dituenean, graduoko ikasleen ordezkariak bi izango dira.

c) Masterreko ikasleen ordezkari bat. Saileko kontseiluak 26 kide baino gehiago dituenean, masterreko ikasleen ordezkariak bi izango dira.

d) Doktoregoko ikasleen ordezkari bat. Saileko kontseiluak 26 kide baino gehiago dituenean, graduondoko ikasleen ordezkariak bi izango dira.

2.– Irakasle-ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkarien agintaldia lau urtekoa izango da. Ikasleen ordezkarien agintaldia, berriz, bi urtekoa izango da.

3.– Sailari atxikitako gainerako irakasle-ikertzaileen ordezkariak irakasle-ikertzaile horien artean eta artetik aukeratuko dira.

4.– Graduoko eta masterreko ikasleen ordezkariak sailak eskolak ematen dituen ikastegietako ikasleen kontseiluen bitartez aukeratuko dira, ikastegietako ikasleen kontseiluen arautegiek xedatutako prozedurari jarraikiz.

5.– Sailaren arautegiak besterik xedatu ezean, doktoregoko ikasleen ordezkaria saileko zuzendariak deituta bi urterik behin, abenduan, egingo den bileran aukeratuko da. Biler horretara saileko graduondoko programetan matrikulatutako ikasle guztiei deituko zaie. Horretarako, bilerara deitu beharreko ikasleen errola eskatuko dio saileko zuzendariak hala dagokion zerbitzuari.

11. artikulua.– Ordezkari izateari uztea.

Ordezkaria izatea norberari dagokion ezaugarria da. Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoi:

a) Heriotza, ezintasuna edo kargurako gaitasuna kenduta izatea.

- b) Hauteskundeak balio gabetzea.
- c) Agintaldia amaitzea.
- d) Dimisioa aurkeztea.
- e) UPV/EHUko kidea izateari uztea, edo hautatua izan zen kidegoko kidea izateari uztea.
- f) Organoaren elkarren segidako hiru bileratara edo txandakako bost bileratara justifikatu gabe huts egitea, arautegiak kopuru handiagoa xedatu ezean. Ikasleen ordezkarien kasuan, UPV/EHUko Ikasleen Arautegian zehaztutakoari jarraituko zaio.

12. artikulua.– Saileko Kontseiluaren eginkizunak.

1.– Hauek dira Saileko Kontseiluaren eginkizunak:

- a) Saileko zuzendaria hautatzea arautegiak xedatutakoari jarraikiz.
 - b) Sailaren barne arautegiaren proposamena eta haren aldaketak onartzea.
 - c) Urteko txosten ekonomikoa, saileko irakaskuntzaren eta ikerketaren memoria, eta eginkizunen plana onartzea.
 - d) Urteko irakats eskaintza programatu eta ebaluatzeko irizpideak onartzea.
 - e) Saileko irakasleen irakats betebeharren eta haien balizko aldaketen esleipena onartzea, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako indarreko arautegiaren arabera, Ataleko Kontseiluak edo Kontseiluek, halakorik balego, hala proposatuta.
- Sail batek atalik eduki ezean, batzordeak izendatu ahal izango ditu, jakintza arloka; hartara, batzorde horiek arlo horri atxikitako irakasleen irakats betebeharra esleitzeko proposamena helaraziko diote Saileko Kontseiluari. Batzorde batek jakintza arlo bat edo batzuk bildu ahal izango ditu, eta gutxienez hamabi irakasle-ikertzailek osatuko dute, horietatik zortzik arduraldi osoa izango dutelarik.
- Batzorde horiek ez dute erabakitzeko ahalmenik izango, eta saileko barne arautegian ezarritakoaren arabera osatuko dira, eta, halakorik izan ezean, batzordean bildutako arloko edo arloetako irakasle-ikertzaile guztiek osatuko dituzte. Saileko Kontseiluak batzorde bakoitzerako koordinatzaile bat izendatu ahal izango du, hura osatzen duten irakasle-ikertzaileen artean.
- f) Irakasgaien oinarrizko programak ezartzea, kasuan kasuko ikasketa planaren barruan.
 - g) Masterreko, doktoregoko eta gainerako ikasketetako (unibertsitateko berezko titulu etako ikasketak izan edo ez) eskaintzak proposatzea.
 - h) Doktorego tesiak ebaluatu behar dituzten pertsonak izendatzeko proposamenak onartzea legeak baimendutako baldintzetan, bai eta bestelako epaimahaietako kideak izendatzekoak ere.
 - i) Saileko irakasle-ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.
 - j) Plaza berriak eskatzea eta saileko langileen lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.
 - k) Irakasleen lanari buruzko txosten arrazoituak egitea, irakaskuntza merezimenduak esleitu eta kontratuak berritze aldera.

l) Urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eranskinean (edo hura ordezkaten duten arauetan) aipatzen diren txostenak egitea (Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarriari buruzko Dekretua, martxoaren 29ko 64/2011 Dekretuak aldatua). Horretarako, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileei gehigarritzko ordainsari osagarriak esleitzeko deialdi bat irekita dagoenean, saileko zuzendariak behar adina aldiz bilduko du saileko kontseilua eskatutako txosten guztiak tramitatzeko.

m) Bere eskumenen esparruan, kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren edo artearen arloko lanak egiteko.

n) Venia docendi eman behar bada, aurretiko txostena egitea.

o) Irakasgaiko koordinatzaileak, eta hala dagokionean, ataleko koordinatzaileak izendatzea.

p) Indarreko legeriak, Estatutuek eta horiek garatzeko arauak bere gain uzten dituzten gaine-rako guztiak, bai eta eskuordetzen zaizkionak ere.

II. ATALA

BATZORDE IRAUNKORRA

13. artikulua.– Osaera.

1.– Arautegiak jasota eduki ahal izango du kontseiluaren batzorde iraunkorra sortzea, kontseiluko kideek osatua. Batzorde horren osakideak izango dira zuzendaria, idazkaria, sail ataletako koordinatzaileak eta hiru kidegoen ordezkariak, arautegi honetan xedatutakoaren arabera.

Saileko kontseiluan hogeita sei kide baino gehiago direnean, batzorde iraunkorra eratuko da, saileko kontseiluak bere kideen artetik aukeratua. Saileko kontseiluak hogeita sei kide baino gutxiago dituenean, batzorde iraunkorra eratu ahal izango da saileko kontseiluak hala erabakitzen badu, eta, hala eginez gero, bere barne arautegia horretara egokitu beharko du. Erabaki hori onartzeko, boto baliodunen gehiengo osoa beharko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako bi kasuetan, eta batzordearen arautegiak bestelakorik adierazi ezean, honako hauek izango dira batzordeko kide:

a) Saileko zuzendaria (batzordeko burua izango da).

b) Idazkaria.

c) Sail ataletako koordinatzaileak, egonez gero.

d) Irakasle-ikertzaileen sei ordezkari. Horietako bost irakasle-ikertzaile iraunkorren artetik eta irakasle-ikertzaile ez-iraunkor doktoreen artetik aukeratuko dira; seigarrena, berriz, sailari atxikitako gainerako irakasle-ikertzaileen artetik.

e) Ikasleen ordezkari bat.

f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2.– Batzorde iraunkorreko kideak honi jarraikiz aukeratuko dira:

Berezko kideak (irakasle-ikertzaile iraunkor eta ez-iraunkor doktoreak) Hauteskunde Arautegi Orokorrean xedatutakoari jarraikiz aukeratuko dira.

Kontseiluan ordezkari bakarra daukaten taldeek ordezkari hori berori izango dute batzorde iraunkorrean.

Saileko kontseiluan bi ordezkari edo gehiago dauzkaten taldeek, beren artean aukeratuko dute, Kontseiluaren bilera batean, batzorde iraunkorrerako ordezkaria. Adostasunik ez badago edo berdinketa badago, zozketa egingo da.

3.– Arautegi honetako 11. artikuluan araututako arrazoiren bat badago, batzorde iraunkorreko kideek ordezkari izateari utzi behar diote.

14. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Batzorde iraunkorrak beteko ditu, alde batetik, kontseiluaren arautegiari jarraituz eskuordetuta dituen eginkizunak, eta, bestetik, kontseiluak une jakinetan eskuordetzen dizkionak. Edozelan ere, kontseiluak ezin izango dizkio eskuordetu ez zuzendaria aukeratzeko eskumena, ez sailaren arautegi proposamena onartzekoa.

Arautegiak bestelakorik adierazi ezean, batzorde iraunkorrik badago, eskuordetuta izango ditu saileko kontseiluaren eginkizun guztiak, zuzendaria aukeratzekoa eta sailaren arautegi proposamena onartzekoa izan ezik.

2.– Saileko kontseiluko kideek batzorde iraunkorrak hartutako erabakien berri izan behar dute unean-unean.

III. ATALA

KIDE ANITZEKO ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua.– Xedapen orokorra.

1.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearekin bat etorritz (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa), sailletako kide anitzeko organoak eratzeko eta organo horiek bilerak deitu eta egiteko eta erabakiak hartu eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre egonda nahiz urrutitik jardun ahalko da, salbu eta beren barne erregelamenduan kontrakoa espresuki eta salbuespen gisa jasotzen bada.

2.– Urrutitik jarduteko, bete beharko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean esaten dena baliabide elektronikoen bidez bermatzeaz kideen edo kideak ordeztzen dituzten pertsonen identitatea, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean, eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egongo direla.

16. artikulua.– Bilera motak eta bileren maiztasuna.

1.– Bilerak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

2.– Deialdiak ohiko bileretarako egin behar dira, oro har. Batzorde iraunkorrik badago, saileko kontseiluak urtean gutxienez bitan egin behar du ohiko bilera, eta batzorde iraunkorrak, berriz, gutxienez bi bilera sei hileko bakoitzean. Batzorde iraunkorrik ez dagoen sailletan, aldiz, kontseiluak gutxienez ohiko bi bilera egin behar ditu sei hileko bakoitzean.

3.– Ezohiko bilera egingo da aztertu beharreko gaiak direla eta hala egin behar denean, baita aplikatu beharreko arautegiak xedatutako kasuetan ere. Ezohiko bileretako aztergaien zerrendan ezin dira honako hauek agertu: aurreko akten onespena eta galde-eskeak.

4.– Premiazko bilerak ezohikoak izango dira eta deia gutxienez 24 ordu lehenago egin beharko da. Halakoetan, bileraren hasieran berretsi egin beharko da bilera egiteko arrazoia benetan premiazkoa dela. Berresten ez bada, bilera bertan behera geratuko da besterik gabe.

17. artikulua.– Bilerarako deia.

1.– Kide anitzeko organoetako buruek egin behar dute kasuan kasuko organoaren bilerarako deia.

Gainera, kide anitzeko organoko kideen edo saileko irakasle-ikertzaile doktoreen heren batek edo talde bateko kide guztiek hala eskatzen badute, organoaren bilerarako deia egin behar da. Bilera ezohikoa izango da, eta eskaera egin eta zazpi egun balioduneko epean egin behar da gehienera ere.

2.– Bilerarako deia organoko idazkariak bideratu behar du, aurrerapen nahikoaz eta, edonola ere, bilera baino hiru egun lehenago gutxienez. Bilera non egingo den, zein egunetan eta zein ordutan eta aztergaien zerrenda zehaztu behar ditu deian. Horretarako arrazoi justifikaturik egonez gero, aztergaien zerrendan puntu gehiago sartu ahal izango dira, bilera baino 24 ordu lehenagora arte.

Aztergaiei buruzko dokumentuak aurrerapen nahikoaz eskuratzeko aukera izan behar dute organoko kideek, eta, nolahi ere, bilera baino 24 ordu lehenago.

Organoko kide guztiak edo horiek ordeztzen dituzten pertsonak bildurik daudenean, aurrez aurre edo urrutitik, modu baliodunean era daitezke kide anitzeko organo gisa, bilkurak eta deliberazioak egiteko eta erabakiak hartzeko, aurrez deialdirik egin gabe, kide guztiek hori erabakitzen badute.

3.– Edonola ere, aztergaien zerrenda osatzen duten puntuak zehatz-mehatz jasoko dira deian. Puntu horien artean agertu beharko dira organoko kideen gutxienez % 10ek edo talde bateko kide guztiek behar den garaian eta moduan eskatutakoak.

4.– Guztiak jakitun egon daitezen, deiak argitara eman behar dira organoari dagokion egoitzan eta bere jarduna betetzen duen gainerako gune guztietan, eman ere organoko kideei bilerarako deia egiten zaien egun berean.

18. artikulua.– Kide izatea eta leku hutsak betetzea.

1.– Kide anitzeko organoko ordezkari eginkizunak pertsonalak eta besterenezinak dira.

2.– Organoa behin eratuta, bete gabe geratzen diren plazak kasuan kasuko zerrendako ordezkoei beteko dituzte. Aipatutako irizpideari jarraitu ondoren bete gabe geratzen den plaza kopurua talde bateko kideen % 50 baino handiagoa edo organoko kideen % 30 baino handiagoa bada, hauteskunde partzialak egingo dira. Modu horretara hautatutakoek ordezkari eginkizunak beteko dituzte ordezkatu beharreko kideen agintaldia amaitu arte.

19. artikulua.– Kide anitzeko organoetako kideen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kide anitzeko organoetako kideek organoen bileretara joateko eskubidea eta betebeharra dute, eta esparru arautegi honek ezartzen dizkien eginkizunak bete behar dituzte. Bileretara joateak unibertsitateko gainerako betebeharrak betetzetik salbuetsiko ditu organoko kideak, baina organoak beharrezko neurriak hartuko ditu kideak bileretara joan ahal izan daitezen eta aldi berean zerbitzua beteko dela bermatzeko.

2.– Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute euren eginkizunak aurrera eramateko beharrezkoak izan ditzaketen dokumentazioa eta informazioa eskatu eta eskuratzeko. Beraz, sailaren arautegian jasota egon beharko da zeintzuk izango diren horretarako prozedura eta epeak. Besterik zehaztu ezean, kideek idatziz eskatu beharko dute nahi duten dokumentazioa. Eskarian adierazi beharko dute horretarako eskubidea dutela kide anitzeko organoko kideak direlako, eta

labur azalduko dute nola dokumentazio hori behar duten beren eginkizunak bete ahal izateko. Eskatzaileak horretarako eskubidea daukala behin egiaztaturik, hamabost eguneko epean, gehie-
nez ere, sailak haren esku jarriko du dokumentazioa saileko Idazkaritzan.

20. artikulua.– Kide anitzeko organoa eratzea.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Sailaren arautegian zehaz-
tuta egon behar da lehen eta bigarren deialdiaren artean egon beharreko tartea. Bestelakorik
adierazi ezean, deialdi batetik bestera arteko tartea 30 minutukoa izango da. Organoko buruak eta
idazkariak beti egon behar dute bileran edo, bestela, euren ordezkoez.

2.– Organoak eratzeko quorumari dagokionez, ez dira kontuan hartuko 22. artikuluari jarraituz
eskuordetutako botoak.

3.– Kide anitzeko organoa bigarren deialdian eratzeko beharrezko den quoruma botazio guz-
tietan izango da beharrezkoa.

21. artikulua.– Bileren nondik norakoak.

1.– Kide anitzeko organoko buruak bermatu egin behar du bilera behar bezala betetzen ari dela
eta, arrazoirik egonez gero, bertan behera uzteko erabakia har dezake.

2.– Eztabaidak aztergaien zerrendari jarraikiz egin behar dira. Dena dela, komenigarria izanez
gero, kide anitzeko organoak bileraren ordena aldatzea erabaki dezake organoko buruak hala
proposatuta.

3.– Ezin izango da eztabaidatu edo erabaki aztergai zerrendan jarri ez den gairik; eztabaidatu eta
erabakitzeko, kide anitzeko organoko kide guztiek egon behar dute bilduta, eta gehiengoak erabaki
aztergaia presakoa dela.

4.– Kide anitzeko organoko kideek eskubidea izango dute berba egiteko eta proposamenak
aurkezteko aztergaien zerrendako puntu bakoitzean, betiere arautegi honi eta organoko buruaren
jarraibideei men eginez.

5.– Beharrezko jotzen badu, organoko buruak gaia bozkatu aurreko eztabaidaren denbora
muga dezake, bai eta ordura arte egon daitezkeen parte hartzeen kopurua ere.

6.– Kide anitzeko organoko buruaren iritziz egokia bada, kide ez diren pertsonak gonbida ditzake
bilerara, aztergaien zerrendako punturen bati buruzko iritzia edo informazioa eman dezaten. Bile-
ran gonbidatuak izan direla jaso behar da aktan, eta ez dute botorik emateko eskubiderik izango.

22. artikulua.– Bozketa.

1.– Erabakiak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen gehiengo soila behar izango da,
Estatutuek, sailaren arautegiak edo gainerako lege xedapenek beste gehiengoren bat eskatzen
duten kasuetan izan ezik. Beraz, proposamen bakarra dagoenean, aurrera egingo du kontrako
baino aldeko boto gehiago lortzen baditu.

Bi proposamen badaude, aldeko boto gehien lortzen dituen onartuko da. Proposamenak bi
baino gehiago direnean, emandako botoen gehiengo osoa lortzen duena onartuko da; edo, lehe-
nengo botazioan boto gehien lortu dituzten bi proposamenak hartuta, bigarren botazioan boto
gehiengoren lortzen dituen.

Berdinketa izanez gero, berriro egingo da botazioa; orduan ere berdinketa izanez gero, orga-
noko buruaren kalitate botoak erabakiko du.

2.– Botazioak isilpekoak izango dira, kide anitzeko organoko kideren batek eskatzen bada. Dena dela, botazioa beti izango da isilpekoa pertsoneri buruzkoa bada.

3.– Aurkako botoa ematen dutenek edo abstenitu egiten direnek ez dute erantzukizunik izango kide anitzeko organoak hartutako erabakietan, baldin eta jasota geratzen bada aurkako botoa eman dutela. Horretarako, botazioa isilpekoa denean, organoko idazkariari eman beharko zaio boto txartela botazioaren unean. Boto txartel hori aktari erantsiko zaio.

4.– Hauteskunde prozesuetan izan ezik, sailaren arautegiak botoa kide anitzeko organoko beste kide bati eskuordetzeko aukera jaso ahal du, bai eta arautu ere. Kide anitzeko organoko kide bakoitzak boto bakar bat izan dezake eskuordetuta. Organoko kideek idatziz adierazi behar dute botoa eskuordetu egin dutela, eta idatzi hori bilerako aktari erantsiko zaio.

5.– Kide anitzeko organoko kideek aktan agerraraz dezakete euren boto partikularra eta boto hori emateko arrazoiak. Halakorik egiteko asmoa izanez gero, bileran bertan adierazi beharko dute eta idatziz aurkeztu, 48 orduko epean, aktan jasota gera dadin. Unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti aurkeztuko dira proposamenekin batera. Bestalde, euren parte hartzea edo proposamena aktan hitzez hitz jasotzea eskatzeko eskubidea dute organoko kideek. Horretarako, idatziz aurkeztu behar dute testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako epean.

23. artikulua.– Bilerako akta.

1.– Idazkariak bilerako akta jasoko du bi hizkuntza ofizialetan. Akta bileran bertan edo hurrengoan onartu beharko da. Idazkariak aktaren zirriborra bidaliko die organoko kideei bide elektronikoak erabiliz, eta kideek bide beretik adierazi ahaliko dute testuarekiko adostasuna edo eragozpenak, testuaren onespena bideratzeko; baiezkoa emanez gero, bileran bertan onartutzat joko da.

Aktak onartu ostean, idazkariak sinatu behar ditu eta organoko buruak ontzat eman.

2.– Aktan honako hauek jaso behar dira nahitaez: bilerara etorri direnen zerrenda, eta bilera amaitu aurretik azalpena emanez ezin bertaratu izana adierazi dutenen berariazko aipamena; aztergaiak; bilera non eta zein ordutan egin den; bileran aztertutako puntuak; botazioak nola egin diren eta emaitzak; hartutako erabakien edukia eta eztabaidarako argudio nagusiak.

Kide anitzeko organoak egindako bilkura guztiak grabatu ahaliko dira. Hala eginez gero, grabazioetik lortzen den fitxategia, grabazioaren autentikotasunari eta osotasunari buruz idazkariak egindako ziurtagiria eta bilkuran euskarri elektronikoan erabiltzen diren dokumentu guztiak bilerako aktarekin batera jarri ahaliko dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jasotzeko premiarik izan gabe.

3.– Boto partikularrak ere jasoko dira aktan, kide anitzeko organoko kasuan kasuko kideek hala eskatzen badute. Kide anitzeko organoko kideek euren parte hartzea edo proposamena aktan hitzez hitz jasotzeko eska dezakete. Horretarako, idatziz aurkeztu behar dute testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako epean.

4.– Kide anitzeko organoko kideek aktan aldaketak egitea proposatuz gero, organoko hurrengo bileran onartuko da akta, gehiengoak aldeko botoa ematen badio.

5.– Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen, bilera egin beharko da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa bada, akten zirriborroak bidaliko zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei, eta hamar eguneko epea eman edukiari buruzko erreklamazioak egin ditzaten. Esandako epearen barruan erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, aktak onartutzat emango dira; erreklamaziorik aurkeztuz gero, berriz, kide anitzeko organo berrituak egin beharreko lehe-nengo bileran onartu beharko dira.

24. artikulua.– Erabakiak argitaratzea.

1.– Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako erabakien fede eman eta ziurtagiriak egingo ditu.

2.– Sailaren arautegiak zehaztuko du hartutako erabakiak argitara emateko prozedura. Beranduena jota hiru egun balioduneko epean argitaratu beharko dira eta, betiere, datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete bat egongo direla ikusgai. Arautegiak ez badu zehazten nola emango diren argitara erabakiak, sailak hartutako erabakien zerrenda jasoko duen ziurtagiria egingo du idazkariak, eta ziurtagiri hori emango da argitara. Ziurtagiri hori saileko ohol fisikoan edo, lehentasunez, birtualean jarriko da.

25. artikulua.– Erabakiak betearazi eta jakinaraztea eta errekursoak.

1.– Kide anitzeko organoak hartutako erabakiek onartzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak, erabakian bertan beste ezer adierazi ezean. Erabakien berri eman beharko zaie kasuan kasuko organoei.

2.– Pertsonen buruzko erabakiak, irakaslan esleitzekoak eta lanpostuen zerrendan edo kontratatutako langileen zerrendan eragina dutenak zuzenean jakinarazi behar zaizkie interesdunei. Erabakiek jakinarazpena egiten den unetik aurrera izango dute eragina, eta jakinarazpenak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutako moduan egin beharko dira.

3.– Esparru arautegi honetan aipatutako kide anitzeko organoek hartzen dituzten erabakien kontra gorako errekursoa aurkez dakiok errektoreari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako baldintzak betez. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, errekurrituko den erabakia aurreko artikulua araberak argitaratzen denetik hasita.

4.– Pertsonen buruzko erabakien kontra gorako errekursoa aurkez dakiok errektoreari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako baldintzak betez. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, erabakia interesdunari jakinarazten zaionetik hasita.

II. KAPITULUA

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

26. artikulua.– Xedapen orokorra.

1.– Saileko kide bakarreko organoak dira zuzendaria, idazkaria eta, egonez gero, sail ataleko koordinatzaileak.

2.– Saileko zuzendari, sail ataleko koordinatzaile eta idazkari akademiko karguetan aritzeko, arduraldi osoa izan behar da, legerian xedatutako salbuespenetan izan ezik.

1. ATALA

SAILEKO ZUZENDARIA

27. artikulua.– Saileko zuzendaria.

1.– Zuzendaria saileko kontseiluak aukeratuko du, saileko kide diren irakasle-ikertzaile iraunkor doktoreen artean, eta UPV/EHUko errektoreak izendatuko du.

2.– Zuzendaria ez badago edo gaixorik jartzen bada, saileko idazkariak ordeztuko du, baina gehienez ere hilabete batez, egoera hori eragin duen gertaera jazo denetik zenbatzen hasita. Berdin jokatuko da organo eskudunak zuzendariaren abstentzioa edo errekusazioa deklaratzeko bada. Ordezkatza bidez ematen diren erabaki eta egintzetan, inguruabar hori agerraraziko da, eta zehaztu beharko da zein den zuzendari titularra eta nor egiten ari den ordezkatza.

Absentzia edo gaixotasuna hilabetetik gora luzatzen bada, zuzendariaren ordeztuko dabilenak saileko irakasle-ikertzaileetako bat hautatuko du, jardunean daudenen artean, behin-behinean idazkari lanak egin ditzan, eta berehala jakinarazi beharko dio errektoreari. Egoera hori hiru hilabete luzatzen bada, artikuluko honetako hurrengo atalaren arabera jokatuko da.

3.– Sailean zuzendaririk ez badago, edo ezin baditu bete eginkizunak luzaroan, saileko idazkariak edo, bestela, saileko kategoria eta antzinatean handieneko kideak horren berri eman beharko dio idazkari nagusiari, eta batzorde iraunkorra edo, bestela, saileko kontseilua, premiazko bilerara deitu. Bilera horretan behin-behineko zuzendaria aukeratuko da baldintzak betetzen dituzten artean, baina, bitartean, kategoria eta antzinatean handieneko kideak beteko ditu saileko zuzendari eginkizunak, eta, era berean, bera izango da bilerako buru. Bestalde, artikuluko honetan xedatutako eginkizunak betetzen ez badira, edo hiru hilabete baino gehiago igaro eta zuzendaririk aukeratu ez bada dena delakoagatik, errektoreak ofizioski izendatuko du aldi baterako zuzendaria, kasuan kasuko erantzukizunei kalterik egin gabe.

4.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da. Saileko arautegiak mugatu ahal izango du zuzendariak zenbat agintaldi egin ditzakeen segidan.

5.– Zuzendariak Estatutuetako 180.2 artikuluan jasotako arrazoiengatik utziko du kargua. Estatutuetako 172. artikuluan Unibertsitateko Klaustroaren zentsura mozioari buruz zehaztutakoa saileko kontseiluari dagokiola ulertuko da.

28. artikulua.– Irakaslanetik salbustea.

1.– Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu zuzendariak, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

2.– Agintaldia amaitzean, zuzendariak irakaslanetik neurri berean salbuetsita egoteko eskubi-dea du hasita dagoen lauhilekoa bukatu arte, ohiko azterketen aldia barne. Horretarako, gutxienez hiru urte eman behar izan ditu karguan. Hori baino epe laburragoa eman badu karguan, ez da onartuko horri dagokion zati proportzionalan egotea irakaslanetik salbuetsita.

29. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Hauek dira saileko zuzendariaren eginkizunak:

- a) Sailaren ordezkari izatea.
- b) Saileko kontseiluko burua izatea, baita, dagokionean, saileko batzorde iraunkorreko burua ere, saileko arautegiari jarraikiz.
- c) Saileko kideen eskari eta proposamenak jaso eta bideratzea.
- d) Saileko administrazio eta zerbitzuetako langileen zuzendari funtzionala izatea.
- e) Sailaren urteko memoria, jardueren plana eta txosten ekonomikoa egitea. Urteko memoria eta jardueren planaren ordeztu, saileko webgunean saileko irakaskuntzari, ikerketari, transferentziari eta/edo dibulgazioari buruzko datuak argitaratzea lehenetsiko da, datu horiek eguneratuta badaude betiere eta Saileko Kontseiluak hala erabakitzen badu.

- f) Saileko kide anitzeko organoek hartutako erabakiak betetzea.
 - g) Irakaskuntza eta ebaluazio probak normaltasunez eta benetan betetzen direla zaintzea.
 - h) Zientzia, teknika, giza zientzia eta artearen arloko ikerlanak egiteko sailak egiten dituen kontratuak sinatzea.
 - i) Isilpeko informazioa jasotzea eta diziplina espedientea irekitzeko proposamena egitea, betiere bere eskumenen arloan.
 - j) Irakasgaietako koordinatzaileak eta arloko koordinatzaileak izendatzeko proposamenak egitea eta bideratzea saileko kontseiluari.
 - k) Saileko beste organo batzuei eman ez zaizkienak, unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak eta Estatutuek nahiz indarreko legeriak esleitzen dizkietenak.
- 2.– Era berean, lankidetzak hitzarmenak sinatuko ditu, Gobernu Kontseiluaren jarraibideek xedatutako baldintzetan.

2. ATALA

SAILEKO IDAZKARIA

30. artikulua.– Izendapena eta kargu uztea.

1.– Saileko idazkaria errektoreak izendatuko du, zuzendariak proposatuta. Iraunkorra den edo lanpostu zerrendako plaza bat arduraldi osoz betetzen duen irakasle-ikertzaile bat izendatuko da.

2.– Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoiak: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, kargurako gaitasuna kenduta izatea, UPV/EHUko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, zuzendariak proposatuta.

3.– Idazkariari dagokio saileko idazkaritza akademikoak berezkoak dituen eginkizunak betetzea, baita zuzendariari laguntzea ere.

4.– Idazkariak saileko gobernu, ordezkaritza eta administraziorako kide anitzeko organoen ekintza eta erabakien fede ematen du; akta liburuak egiteaz eta zaintzeaz arduratzen da eta ziurtagiriak egiten ditu, hala erabakienak nola saileko dokumentazio ofizialean jasota dauden ekintza edo gertakariak.

3. ATALA

KIDE BAKARREKO KARGUAK OSASUN ZIENTZIEN ARLOETAKO SAILETAN

31. artikulua.– Zeregin asistentzialak betetzen dituzten irakasle-ikertzaileak kide bakarreko karguak bete ahal izango dituzte Osasun Zientzien arloetako sailetan, baina baldin eta zeregin asistentzial horiek UPV/EHUko unibertsitate ospitale batean beste inon betetzen ez badituzte.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Osasun Zientzien arloetako sailetan irakasle-ikertzaileak zenbatzeko araua.

Arautegi honetako 5.4 artikuluan aipatzen den arduraldiaren neurketari dagokionez, Osasun Zientzien arloetako sailak sortu, aldatu eta kentzeko, plantillako plazak betetzen dauden eta aldi

berean Osakidetzako ospitaleetan diharduten profesionalak arduraldi osoko irakasle-ikertzaile iraunkortzat hartuko dira.

Ezaugarri horiek betetzen ez dituzten langileen plazak arduraldi osokotzat joko dira horri dago-kion ordu kopurua betetzen dutenean. Horretarako, arduraldi partzialeko plazak batuko dira eta emaitza zatituko da arduraldi osorako eskatzen den ordu kopuruaz.

Errektorea gaitzen da horretarako behar diren erabakiak edo xedapenak emateko.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Kide bakarreko karguen agintaldia.

Esparru arautegi hau indarrean jarri arren, saileko organoetako lehengo kideek agintaldia agortu arte jarraituko dute postuetan. Hori ez zaie aplikatuko arautegi honetako azken xedapenetako lehenean aipatzen diren sailei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2019ko urriaren 17ko EHAAn argitaratutako UPV/EHUko Sailen Oinarrizko Arautegia eta 2020ko otsailaren 21ean argitaratutako aldaketa. Era berean, indargabetuta geratzen dira arautegi honetan xedatutakoari kontra egiten dioten gainontzeko arautegi guztiak.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean.